



DONAPALEU

Baionako EDFaren zuzendaria asteazkenean etorriko da. EDF argindarra banatzen duen zerbitzu publikoko Baionako zuzendaria, Dussault jauna, Donapaleura etorriko da asteazkenean herriko etxeko hautetsiei EDFek herrian duen 'distrika' herstekoa arrazoi berri ematera. Apirilaren 30ean Donapaleuko Kantonamenduaren Geroa elkartearen berrogeita hamar pertsona joan ziren Baionara Dussault zuzendariarekin hitz egiteko asmoz, baina EDFeko egoitzaren ateak itxita aurkitu zituzten eta Delpeyroux zerbitzu administratiboaren arduradunarekin bai zik ez zuten mintzatu ahal izan. Oraingoan, zuzendaria bera saiatuko da herriko hautetsiekin adostasun batera iristeko.



EIBAR

Eibarko Musikoak liburuaren aurkezpenak emango dio hasiera ostiralean Euskal Jaiari. Deportiboko Kultura Batzordeak eta Kezka Dantza taldeak Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin antolatu dute Euskal Jaia, eta maiatzaren 17tik ekainaren 2a bitartean luzatuko da. Maiatzak 17, ostiralean Ramon Sarasua musikari eibartarraren Eibarko Musikoak liburuaren aurkezpenak emango dio hasiera Euskal Jaiari. Letrakit euskal letren erakusketa ere irekiko da egun berean Txantxa Zelai parkean eta maiatzaren 21a arte egongo da zabalik. Euskal Jaian barruan Euskal Etnografiari buruzko erakusketa ere ikusgai izango da. Musika ekitaldik ere izango dira, honela maiatzaren 17an bertan, gauekoa hamar t'erdietatik aurrera Xabier Amuriza eta Anje Duhalderen Kantari diska berriaren kantak entzuteko aukera izango da Juan Bautista Gisasola kontserbatorioan. Maiatzaren 28an 'Hemengo musika mobida azken hamar urteotan eta geroa' izenburupean mahaingurua izango da Katu Kale tabernan, eta bertan Su Ta Gar, Oskorri eta Hertzainakeko taldekideek hartuko dute parte.

BERROBI

Aste Kulturala izango dute berrobitarrek ostirala arte. Astelehenetik ostiralera bitartean ekintza ugari izango da Aste Kulturalaren barne. Gaur asteartea, eskolarteko kirol eguna ospatuko dute eta kirol ekintzen barruan parapentea izango da arratsaldeko ordu bit'erdietatik aurrera. Saio umoretsuak ere izango dira, horrela Takolo, Pirrux eta Porrotx pailazoen eskainiko duten saio parregarria ikusteko aukera izango da bihar arratsaldeko hiru etan. Hitzaldi bat izango da ostegunean, 'Berrikuntza pedagogikoa.

ZANGOZA



VALLESANTORO Jauregian berritze lanak burutuko ditu Nafarroako Gobernuak. Jauregiaren aurrealdeko teilategala konpontzeari ekingo zaio, egoera kaskarrean bait dago. Milioi bat pezetako aurrekontuarekin Construcciones Aranguren enpresa arduratuko da konponketak egiteaz. Vallesantoro Jauregia Nafarroako Gobernuarena da berez, baina Zangozako Udalari Kultur Etxe gisa erabiltzeko baimena eman zion duela bost urte. Ordudanik Udala arduratzen da Jauregia egoera egokian mantentzeaz, baina Nafar Gobernuaren esku dago eraikuntzaren egitura konpotzea. Barrokoaren ezaugarriak kontutan izanik eraiki zen Jauregia XVI mendean, eta egurrezko teilategalean giza, abere eta lore itxura duten apaingarriak ditu (arte mejikarra jarraituz eraiki zen teilategalea). 'Las Marquesas' izenarekin ezaguna da herrian Vallesantoroko Jauregia.

Esperientzia bat: Amara berri ikastola' buruz hitzegingo du Karlos Garaialde Amara Berriko irakasleak. Ostiralean berriz, txontxongiloak izango dira arratsaldeko bostetan, eta sei t'erdietan hasita berri den ikastetxearen inaugurazioa egingo da. Pailazoak eta kirolak herriko pilotalekuan izango dira, eta gainontzeko ekintzat ikastetxean.

ERRETERIA

Herreria etxetik bota nahi dituztela salatu dute bertakoek. Aurreko asteko igandean ezezagun batzuk Herreria etxeko atea indarrez behera bota eta barrura sartu ziren, eta ondoren sua eman zioten etxeari. Kalte handiak izan ez bazituen ere, goiko solairua kiskalita geratu zen, eta barruan bizi direnek itzali zuten sua ahal zuten moduan. Etxetik kanporatu nahi dituztela salatu dute bertan bizi direnek, «Ertzaintza herrira etorri zenetik gure aurkako ekintzak ugariak izan dira, eta argia ere kendu digute» salatu dute. Ekintza guzti hauek salatzeak asmoz, kontzentrazioa burutuko dute maiatzak 16, ostegunean Udalako arkupetan.



BARASOAIN

Damian Iturria herriko alkatea, igandean Castejon-Iruñea bidea zeraman tren batek harrapatu

eta bertan hilda utzi zuen. Castejon-Irun bidearen 142 kilometroan lokomotorak trenbide-pasagunea gurutzatzen ari zela gertatu zen istripua. Ondorioz trenak kontrola galdu zuen eta Madrid-Hendaia bidea egiten duen trenaren kontra jo zuen. Bigarren istripu honetan hiru pertsonen garrantzi gabeko zauriak izan zituzten. Zaurituak Marlene Vandebroeck belgiarra, T. Blanco Saenz Burgosekoa eta A. Alcantara zaragozarra dira.

LIZARRA

Lizarratik Zudairera doan errepidea hobetzeko asmoz lehiaketa publikoa irekitzea erabaki du Nafarroako Gobernuak. Antonio Aragon nafar Gobernuaren Herrilan, Garraio eta Komunikazioen Saileko kontseilariak onartu berri du, lehiaketa publikoaren bidez adjudikatzea Lizarratik Zudairera doan errepidea hobetzeko lanak. 140 milioitako aurrekontua du proiektuak eta bost hilebeteren buruan amaitu behar dira lanak. Lizarratik Zudairera doan errepidearen hamargarrenetik hamaseigarren kilometro bitarteko zatian, zolua hobetuko da, eta Bakedano eta Barindano bitartean errepidea zazpi metrotara zabalduko da. Seinalezazioak ere jarriko dira.

GOIZUETA

Bigarren bertso-paper lehiaketa antolatu du Euskara Batzordeak. Bertso-paper

lehiaketaren bidez bertsoleak suspertu nahi du Euskara Batzordeak. Goizuetarrek bakarrik partehartu ahal izango dute lehiaketan, eta lanak aurkezteko azken eguna ekainak 2 izango da. Hiru talde eratu dira adinaren arabera: Hamabi urterartekoek lau bertso aurkeztuko dituzte eta txapeldunak 4.000 pezetara jasoko ditu. Hamasei urte bitartekoek sei bertso aurkeztuko dituzte, eta garaile irtengo denak 8.000 pezetara eskuratuko ditu. Azkenik, helduek zortzi eta hamar bertso bitarteko lanak aurkeztu beharko dituzte, garaileak 15.000 pezetara eskuratuz. Lanak aurkezterakoan, bertsoak ezizenez sinatuko dira eta izena beste sobre baten barruan sartuta.



GASTEIZ

Gasteizko Txagorritxu ospitalean ez da oraindik oporretarako akordiorik lortu. Akordiorik lortzen ez bada, gaixoa eta langilea egoera larrian egongo direla salatu dute zentruko sindikatuek. Azken hauen ustez, arazoa planifikaziorik eza da, prebisiorek ez dela egiten eta beraz, ordezkapenerako diru gutxi jartzen dela adierazi dute sindikatuen ordezkariek. Ospitaleko langileek azaldu dutenez, erizainek bizi duten egoera bereziki larria da kontratu eskasak eskaintzen zaizkielako. Arazo guzti honetan langileek ez dutela zer esanik eta administrazioarekin duten harrema-

nak txarrak direla azaldu dute sindikatuek. Arazo honi irtenbidea eman nahian, asteazkenean Asanblada egingo dute langileek.

LAUDIO

Bost kotxe kiskali egin ziren igande goizaldean izandako sutean. Goizaldeko ordu-bata t'erdia aldera Laburdi kaleko garage batzuetatik sua ateratzen ari zela ohartu zen jendea. Suaren ondorioz, Laburdi kaleko lehenengo, hirugarren eta bostgarren zenbakiko ezkatza eta garageak kalteak izan zituzten, eta bost kotxe guztiz kiskalita geratu ziren. Sutearen inguruko eraikuntzak jendea hustu zituen Ertzaintzak, eta sua itzali ondoren egindako ikerketen arabera, sua nahita eman zuen norbaitek. Gainera, istripua aurretik gizon bat ikusi zuten inguruetan. Ertzaintza, orain, gizona bilatzen ari da.



ZEANURI

Perineumonia desagertu denetik Bizkaian egindako lehen Abere Azoka izan zen igandekoa. Berrogeitamahiru abere besterik ez zituzten inguratu Arratiako bost abeltzainek, eta izanekoekin gonparatuz % 59 gutxitu dira inguratutako abereak, administrazioak kontrol zorrotzak ezarri bait ditu perineumonia berragertu ez dadin. Karmelo Larrakoetxea Kultura zinegotziaren esanetan, kalteak izan ditu Azokak «asteazkenean egiteko zuelako Diputazioak Azoka egiteko baimenik eman, eta ordurako abeltzain batzuek mendira eramanez zituzten beren abereak». Julian Ajuariagerra, Federico Agirrezabala eta Agustin Lejarreta izan ziren aurtengo saridunak.

GETXO

Ertzaintzak eraso egin zuen protestan bildutako Jolaseta Kirol Elkartekoekin. Igandean egin zen ekintza semaforo bat jartzea eskatuz. Igandekoarekin hirugarren aldia da semaforoa eskatzeko egiten duten protesta ekintza. Maiatzaren 1 hogeitahiru urteko gazte bat hil zen, kirol instalaziora sartzeko errepide zeharkatzen ari zela kotxe batek harrapatu ondoren. Leku honetan ez dago inolako seinalerik, eta semaforo bat beharrezkotzat jotzen dute Jolaseta Kirol Elkartekoek. Igandean burututako trafikoko mozketan ordea, Ertzaintza agertu eta bertan zirenei joko hasi zen. Protesta burutzen ari ziren ospitaletara eraman beharrean izan ziren. Makilak eta gomazko pilotak erabili zituzten Ertzaintzak bertan bildutakoekin adierazi dutenez. Eraso salatzeko asmoz, Epaitegiaren denuntzia aurkeztu zuten atzo Jolaseta Kirol Elkartekoek.